

Laburpena, Derioko Udalaren 2026-0453 Alkatetza Dekretuarena, 2026ko uztailaren 29koa, Derioko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko 2025. urterako laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onartzen duena.

BDNS (Identif.):

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Laguntza horietarako Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak bakarrik izan daitezke onuradun.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua etxebizitzaren alokairuak eragindako gastuak diruz laguntzea da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

2023ko apirilaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarriak
https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2023/04/11/II-1540_eus.pdf

Laugarrena. Zenbatekoa:

Partida eta aurrekontu-kreditua

1500 48001 Familientzako dirulaguntzak. Emantzipazioa.

Aurrekontu-kreditua: 20.000 €

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa errentaren % 50 izango da, eta gehienez 300 € hilean. kontratu bidez.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Deialdiaren laburpena 2026ko BAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko irailaren 30era arte, biak barne.

Derio, 2026ko uztailaren 29a

Alkatea, Esther Apraiz